



Euskara Nafarroan

Sagrario Aleman, Paula Kasares eta Oskar Zapata

Elkarrizketa **Anika Luján**, Argia Ikastolako zuzendaria

Iritzia **Koldo Colomo**, Garesko Udaleko Euskara zerbitzuburua



Euskararen normalizazioa, herritarren esku

Nafar euskaltzaleak eta euskaldunak ez ote dira akituta? Garai bateko kemen eta indarrak jada ez ote dira epeldu? Nafarroako baldintza ekonomiko eta politikoez ez dute bederen inolaz ere laguntzen herritarrek motibatzen. Euskararen Foru Legeak 25 urte beteko ditu abenduaren 15ean. Hiru mahaikideak ados dira aukerak anitz eskaintzen zituela Legeak. Alabaina, arduradun politikoez parez pare zabaldu zitezkeen leihoak poliki-poliki ireki beharrean, ixtera jo dute. Horren adibide da ETB. Besteak beste, ETB3 –marraski bizidunak erruz– ikusteko zailtasunak daude Nafarroan eta hurrek euskaraz telebista ezin ikusiak duen garrantzia azpimarratu dute.

Dena ez da negarra izan. Iazko maiatzaren 15ean Kontseiluak antolatutako manifestazioa izan dugu hizpide. Lehentxeagotik eta ondoren ere bai, euskalgintzako hainbat elkarte eta erakunde ari da batzen, Nafarroan euskarak duen egoera aztertu eta jendarteari proposamenak luzatzeko asmoz.

■ **Egilea: Onintza Irureta Azkune**
Argazkiak: Josu Santesteban

Euskararen Foru Legeak 25 urte beteko ditu abenduaren 15ean. Egiguzue balorazioa.

PAULA KASARES: Ez da ahantzi behar Euskararen Foru Legea zein kontestutan onartu zen, ez da inolaz ere adostasun politikoaren ondorioa. Gaur egun adostasun falta bera dago. Legea bera, ondoan dituen antzeko bertze legeen aldean, oso lege berezia da. Estatuan gizarte ele-

bitasunari eman ez zaion irtenbidea hemen eman zaio: zonifikazioa. Legeak gabezia handiak ditu, ukitzen dituen alorrak kontuan hartuta. Administrazioa, irakaskuntza eta hedabideak baizik ez ditu ukitzen eta gaur egun badakigu hizkuntza baten egoera sozialak beste alor anitz ere behar dituela: gizarte erabilerari, sozioekonomiari lotutakoak... Orduan, Legea eskasa da kontuan hartzen duen eragiteko alorrari dagokionez, eta bes-

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.300. zenbakiarekin banatua, 2011ko azaroaren 27an)



Ezkerretik eskuinera: Paula Kasares, Oskar Zapata eta Sagrario Aleman.

talde, testu eskas hori baliatuz hizkuntza politika egiteko Nafarroan izan den borondatea ezaguna da. Azken horri lotuta markatuko nituzke bi garai: agian posibilistagoa izan zen hasierako garaia, 1986tik 2000. urtera artekoa eta 2000. urtean hasi zen atzera jotze ikaragarria. Hau da, Legea berez oso posibilista zen, aukerak ematen zituen gauza oso ezberdinak egiteko, baina Nafarroan beti interpretatu izan da oso modu estuan. Azkeneko urteetan detailetxo bakarra izan zen; Pérez Nievasek Iruñerriko eremu ez euskalduneko zenbait udalerritan D eredua zabaltzea ahalbidetu zuen. Baina testua aukera guztietan garatzeko ez da izan inolako borondate politikorik.

Eta zertaz ez, egin behar da autokritika pixka bat. Legeak duen elementu oso inportantea irakaskuntza da. Euskarazko irakaskuntza Nafarroa osora zabaltzeko bi aukera garbi izan dira Parlamentuan, 80ko eta 90eko hamarkadetan. Ez ziren probestu. Zenbait alderdi abertzalaren aldetik agian jokaerak maximalistegiak izan ziren: zonifikazioa ez baitzen onartzen, gerta zitekeen ezein hobekuntzatxori ez zioten bide eman.

SAGRARIO ALEMAN: Legea sortu aurretik, urte bat lehenago, Jesus Azkonak azterketa egin zuen nafarren jarrerak ikusteko eta hark zioen Nafarroa guztian, ez iparraldean eta Iruñerrian

bakarrik, Erriberan ere bai, euskararen aldeko jarrera nabaria zela. Jarreragatik balitz lege hobea egin zitekeela zioen. Ez zuen zonifikazioa proposatzen, legearen aplikazioak ordea tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar zela zioen. Ondoren, Azkonaren azterketaren iritzia-
ren kontra egin zen Legea, zonifikazioa eskubideetan oinarriturik egin zen.

Euskalgintzan gehiago ziren Lege horren kontra zirenak, zonifikazioa kaltegarritzat jotzen zelako.

Legearen betetze maila? Paulak aipatu du arlo gutxi ukitzen dituela Legeak, eta gainera, beti progresibitateaz, nahiaz, hitz egiten du. Baina gero, nahiz eta jendeak nahi hori azaldu, ez da

kontuan hartzen. Adibidez irakaskuntzan, Iruñean problema asko izan ziren D ereduak sartzeko eskola zenbaitetan.

Komunikabideen arloan dio, euskara progresiboki sartuko dela komunikabide guztietan. Deus ere ez da egin. Momenturik hoberenetan bost bat minutu izan ditu euskarak bizpahiru irratitan. Hor dugu herritarren ahaleginez lortutako Euskalerrria Irratia, lizentziarik gabe segitzen du. Europatik etorritako adituek komentatzen zuten euskaraz arituko ziren telebista eta irratia behar zirela Nafarroan. ETB hartzeko zailtasun handiekin segitzen dugu, eta euskara hutsean Nafarroa osorako ari den telebistarik ez dugu.

M a h a i k i d e a k

■ SAGRARIO ALEMAN

Arturo Campion euskaltegiko zuzendaria



Etxalekun (Nafarroa) jaio zen 1952ko martxoaren 5ean. Farmazian lizentziatua da Madrilgo Unibertsitate Konplutensean. Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduan kasik 40 urteko ibilbidea du. Hasierako urtetan Sakanako eta Andosilla-Sartagudako euskaltegietan jardun zuen irakasle lanetan. 30 bat urte izango dira Iruñako IKArekin Arturo Campion euskaltegiaren zuzendari karguan dagoela. 2008az geroztik euskaltzaina da.

■ PAULA KASARES

Hizkuntzalaria



Iruñean jaioa, 1969an. Euskal Filologian eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua. Hizkuntza Plangintza Graduondoko Unibertsitate diplomaduna eta Soziolinguistikan doktoregaia. Euskara irakasle aritu zen AEKn, IKAn eta Nafarroako Gobernuan. 1988tik 2000ra arte UEUko Soziolinguistika Sailaren ardura-duna izan zen; 2001etik 2003ra arte Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria; 2003-2004 ikasturtetik orain bitartean NUPeko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko irakasle elkartua eta HIZNET Hizkuntza Plangintzako graduondoko irakaslea.

Legea, sorreran, nahiko murriztailea ikusten genuen eta Legea betetzeko ardura dutenek izan zitekeena baino murriztaileago interpretatu dute. Azken batean, debekurik ez du aipatzen, baina batzuetan jokatzeko dute Legea debekatzeko balitz bezala. Ordea, egin zitekeenari begira egotea alfer xamarra da. Lehen bazen gizartean euskararen aldeko motibazioa eta jarrera. Orain, esango nuke lasaitu egin garela. Neurri handi batean Legea ontzat eman dugu, neurriak hartuak daude eta horrela oso ongi gaude.

OSKAR ZAPATA: Noski hobeto egin zitekeela, erabaki politikoak egon dira horrela edo hala izan ez zedin. Gauza batzuk oso argigarriak dira zonifikazioari dagokionez. Gaur egun Nafarroa-

ko euskaldun gehienak Iruñerrian bizi gara. Oso ongi lotu zuten hori: Iruñerria ez dugu elebidun egingo. Alegia, zerbitzuak eskaintzen diren eskualdean ez dago euskaldunentzat eskubiderik eta ez dago betebeharririk administrazioaren ize-nean, askotan. Eta Legeak horretarako aukera ematen bazuen, dekretuak etorri dira hori mugatzera.

Legea aldatu zitekeela. Gogoan dut PSNk antolatutako jardunaldi bat. Aingeru Epaltza aritu zitzairen Europan eta munduan ematen diren bestelako ereduak eta adibideak azaltzen, plan-teamendu garaikideak eta malguak. Nik oso urrun ikusi nituen. Ez gaituzte ezagutu nahi.

P. KASARES: Legeak zer ondorio ditu? Duela 25 urteko Legeak kontzeptu batzuk ezarri ditu. Adibidez, eremu ez-euskalduna eta eremu mistoa kontzeptuak. Bada belaunaldi oso bat logika horren barnean sortu dena, Nafarroako gehiena ez-euskalduna izatearen naturalitatea eta nolabait *statu quo*-a onartzen duena, ontzat ematen duena. Beraz, ez-euskalduna den tokian euskararen aldeko edozein gauza naturaren kontrakoa da. Kontzeptuok desmuntatzea zaila izanzen da. Nafartzat hartzen diren alderdi politikoek, PSN batek, UPN batek, ez dute inondik inora bere egiten euskara. Zuk erran duzu [Zapatari begira] urruti ikusten dutela, bai hori da sentsazioa, euskal mundua ez dute ezagutzen eta ez dago borondate minimorik horretarako. Hori horrela izanda, Lege honek ordezkoa izateko perspektibak zailak dira.

O. ZAPATA: Progresibitatea planteatzen da edo aurreikusten da. Epaltzak planteatzen zien bidea da hori: badituzue modu progresiboan eremuak zabaltzeko, hiztunen eskubideak edo beharrak atenditzeko aukerak, baduzue UPNren aurrean malgu jokatzeko aukera. Hori jakin badakite edo behintzat kontatu zaie.

S. ALEMAN: Progresibitatea alderantziz ulertu dute. Hasieran, pauso txiki batzuk gogoz kontra eman zituzten, eta gero atzera egin dute beraiek

■ OSKAR ZAPATA

Topaguneko Nafarroako arduraduna



Oskar Zapata Solano Iruñean jaio zen 1963ko urtarrilaren 26an. 20 urterekin hasi zuen euskalduntze prozesua. 30 urterekin ezagutu zuen euskaldunon elkarleen mugimendua eta horri lotuta jardun du harrezkero. 1997an Atarrabiako Karrikaluze elkarlearen sorreran sustapen taldeko bultzatzailea izan zen. 2004. urtetik hona Topaguneko langilea da. Nafarroako arduraduna da eta baita Mintzapraktika Saileko arduraduna ere. Topaguneko zuzendaritzako kidea da.



Paula Kasares

Gabezien artean dago haur-gazteen aisialdia, irakaskuntzan euskaldundu diren horiek hemendik 20 urtera ez bazaizkigu galduko hiztun gisa. Irabaziak baditugu, baina zuloz beteta dagoen zakuan ari gara ura sartzen anitz aldiz”

emandako pauso horietan ere. Hala diote: “Ez, ez, hobe da mediku ona euskalduna baino” biak kontrajarrian baleude bezala, euskara jakitea eta lanean ona izatea. Zonifikazioak estatus bat sortu du: hau horrela da eta aldaezina da, hau euskalduna da eta besteak ez dira euskaldunak. Euskarak behartu egiten du jendea. Horrek osatzen du diskurtsoa. Behartzea ez da politika ego-kia, baina aldi berean ingelesa ikastera behartzen dute eskolan. Ingelesaren kasuan “behartu” hitza ez da inon agertzen, baina euskararekin automatikoki egiten da lotura.

P. KASARES: Ikaragarria da zer perbertsio diskurtsibo sortzen duen Legearen logikak. Adibidez, Estatuan bai Katalunian, bai Galizian, bai Euskal Autonomia Erkidegoan gurasoek haurren irakas hizkuntza hautatzeko eskubidearen aldeko taldeak sortu dira, *Plataforma por la libertad de elección lingüística* delakoan bilduak. Autonomia erkidego horietan PSOE, PP eta UPyDk gurasoen hautatzeko eskubidea defendatzen dute. Hemen zergatik ez? Nik sortuko nuke “gurasoek hautatzeko eskubidea dute” taldea. Nafarroan gurasoek ez dute inoiz hautatu ahal izan. Oskarrek aipatu duen PSNren euskararen aldeko jardunaldia oso adierazgarria izan zen. Epaltzak sekulako diskurtso polita egin zuen eta hitza hartu zuelarik Roberto Jimenez PSNko buruak, zer erran zuen? Aurelio Artetaren diskurtso retrogradoaren bertsio berritua egin zuen, iritsi zen erratera euskara ama hizkuntza duten horiek

eskubideren bat eskatzea ongi dagoela, haiek azken batean ezin izan dutela euskaldun izatea saihestu, euskaldunak direla sortzetik, baina irakaskuntzaren bidez euskaldundu diren horiek zerbitzuak euskaraz eskatzerik ez dutela. Hori sozialista batek ez luke defendatuko ez Katalunian, ez EAEn, ez Galizian ezta burutik jota ere. Hemen Legearen logika maltzuraren barnean edozein bazterkeria, beste inon defenda ezin dena, egin daiteke.

O. ZAPATA: Asko eskertu genuen Aingerurena, eta baita Robertorena ere, oso argigarria izan zelako. Hau PSNko burua da Nafarroan. Zer kontatu behar diogu? Aingerurena entzun eta gero hori dena botatzen duzu? Beste mundu batekoa zara.

P. KASARES: Enpatiarik gabeko jarrera.

S. ALEMAN: Zerbait positiboa izan zuen: euskararekin lotutako zerbait egiteko beharra sentitu zuten. Nahi baduzu irudi kanpaina, baina beharra sentitu zuten. Nafarroa Oinezan ikusi nuen Roberto Jimenez, eta esan nuen, beno, pauso bat da.

O. ZAPATA: Aldeko legea behar dugula jakitun, bitartean eta ostean hizkuntza komunitate osasuntsua sortzeko badugu hamaika lan lerro eta horiei guztiei ere heldu behar diegu. Horretarako gizartearekin lan egin behar dugu, gero eta aldekotasun gehiago lortzeko. Ez dezagun pentsa legeak dena emango digunik, badaude zoritxarrez oso aurrekari txarrak. Legea aldeko izanik ere, hizkuntzaren erabilera sozialak ez du aurre egin hainbat lekutan. Gure ustez erabilera soziala funtsezkoa da hizkuntzaren biziraupenean.

Legeak lege, zein da euskararen egoera gaur egun Nafarroan?

O. ZAPATA: Baldintza politikoak direnak dira eta mahai gainean jarri ditugu. Badago klase poli-

tiko bat hizkuntza komunitatearen kontra dagoe-na, eta gainera, sentimendu euskaltzalearekin jokatzeko du kontra egiteko. Gehiengo da klase politikoaren artean. Guk [Topaguneak] oso garbi dugu aldeko baldintza politikoak behar ditugula aldaketak emango badira.

Bestalde, ikusi behar dugu zer nolako diskurtsoak behar diren masa soziala gureganatzeko. Inoiz gehiengo euskaltzalea lortzeko lan egin behar dugu. Masa soziala limurtzeko, gureganatzeko edo aldekoago egiteko lan egin behar dugu. Egokitu beharreko guztiak egokitu beharko ditugu, nori zer kontatu eta nola kontatu aztertu beharko dugu. Ez du balio gauza bera esatea euskalduna den pertsona kontziente eta koherentea eta manifa edo [Nafarroa] Oinez-era joateko prest dagoenari. Egokitu behar dugu egokitu beharreko guztia, jakinik nora joan nahi dugun. Hiru Erregeen Mahaira joan nahi baduzu zortzi urteko haur batekin ez diozu esango, “begira, hara noa”. Bidean gozatu dezan saiatu beharko duzu, bere senti dezan egiten ari dena. Komunikazioan trebatu behar gara gehiago eta pedagogia asko egin behar dugu.

P. KASARES: Duela 30 urte uste zen euskararen ezagutza hutsetik etorriko zela hizkuntzaren normaltzea. Irakaskuntzan jarri genuen esperantza osoa. Ikusi dugu ezagutza hutsak ez duela berez ekartzen gizarte erabileraren normaltzea eta hedatzea, eta ikusi dugu zer beharrezkoak diren erabilera bultzatzeko programak eta beste. Gabezien artean dago haur-gazteen aisialdia, irakaskuntzan euskaldunak diren horiek hemendik hogeitaz urtera ez bazaizkigu galduko hiztun gisa. Irabaziak baditugu, baina zuloz beteta dagoen zakuan ari gara ura sartzen anitz aldiz. Ez baita hain erraza; etxe erdalduneko haurra eskolan sartu eta esperoko duzu hamabortz urte geroago euskaraz bizitzeko prest den euskaldun osoa etorriko dela, eta ez da horrela. Alde horretatik, larrugorritan gaude Nafarroan, ez bada gizarte ekimeneko elkarte eta erakundeek egiten duten lana, baina instituzionalki ez zaio heldu horri.



Sagrario Aleman

Ez dugu pentsatu behar ikastolak edo helduen euskalduntze-alfabetatzea sortu zirenean bitartekoak eta babesak zutenik. Ez da gauza berria babes falta. Nire ustez beste zerbait dago hor: garai batean kemen handiz aritu ziren eta orain, edo nekea daukagulako, edo administrazioan ustea jarri dugulako, edo...”

Adibidez, orain guraso direnek egoera hobea izan dute euskarazko hedabideei dagokienez oraingo haur txikiek baino. Haur txikiek ezin marrazki bizidunak euskaraz ikusi. Nire ikerketarako familietan eta eskoletan egin ditudan elkarriketetan hori aipatzen da behin eta berriz.

S. ALEMAN: Aurrerapauso asko eman dira. Dena den, bestelako giro bat zegoen orain urte batzuk eta zenbait urtean iraun du horrek. Jendea prest zegoen ahalegina egiteko, baina jendea prest egoten da ahalegina egiteko noiz arte? Irakaskuntzan –helduenean eta eskoletan– pauso asko eman dira, baina iruditzen zait –eta behar-bada gehiago da ustea datuak baino– azken hamar urte hauetan-edo moteldu direla euskararen aldeko aurreratze horiek. Irakaskuntzan Gobernuak oso ongi asmatu du bere hizkuntza politika egiten, hau da, euskararen kontrako hizkuntza politika egiten, ingelesa jarri du tarteko. Horren bidez D eredua moteldu da. Helduen euskalduntzean gauza bera, behera doa nabarmen. Jendeak, behar-bada, ez du grinarik euskara ikasteko. Eta badakit adibidez, haurra ikastolara eramatea pauso bat dela, ahalegin asko kostatzen zaiola askotan helduari haurra ikastolara bidaltzea, baina ezin dugu gure burua engainatu. Garbi izan behar dugu horrekin bakarrik ez goazela inora.



Hiru mahaikideek errepaso ederra eman zioten abenduaren 15ean 25 urte beteko dituen Euskararen Foru Legeari.

Eskolari zama ikaragarria jartzen diogu, eskolak eginen du dena. Alfabetatuko ditugu, idatzizkoa ikasiko dute, baina ahozkoa landu ez badugu gero ez eskatu gazteei euskaraz komunika daitezzen karrikan, eman ez diegun zerbait ari gara ebaluatzen. Begiratu beharko dugu beraz nolako hezkuntza sistema erabiliko dugun D ereduan. Garai hartan ikastolara haurrak eramane zituzten gurasoak oso ausartak izan ziren, haien seme-alaben etorkizuna arriskatu zuten. Agian orain garaia dugu esateko, “dena ez dugu administrazioetik erdietsiko”. Antolatzen hasi beharko genuke. Haur Eskolan adibidez, hiztun on batekin hiruzpalau haur elkartu litezke, eta horrela, ahozkoa bereganatuko lukete. Irudimena martxan jarri beharko dugu.

Ezagutza inportantea da, baina aurrera gindoaizen horietan gelditu egin da. Beste arlo batzuetan

sartu dela euskara? Bai, baina oso motel. Erabile-
ran, azkeneko neurketetan, ez zen halako pauso-
rik ikusten.

P. KASARES: Gazteen artean Iruñerrian behe-
ra.

S. ALEMAN: Transmisioari dagokionez, ikasto-
lan edo euskaltegian ikasi duten gazte horiek,
gaur guraso direnek, askotan seme-alabei ez
diote euskara irakasten eta diote: “Nik ez dut
ongi hitz egiten eta hobe da euskaraz ez egitea”.
Batzuek eta besteek egindako diskurtsoek badute
ondoriorik, ongi ez hitz eginez gero hobe omen
da euskaraz ez hitz egitea haurrei. Orokorrean,
batetik, egiten diren diskurtsoek, eta bestetik,
laguntza ezak eta erasoek etsi hartzea eragin
digute, edo moteltzea behintzat bai. Irakaskun-
tzan pare bat faktore behintzat ikusten ditut

garbi xamar: batetik, azken hamar urteotan etor-kin asko etorri da Nafarroara eta ez ditugu erakarrri –zalantzan jartzen dut bitartekorik genuen—. Administrazioak ez du deus egin. Bestetik, British edo TIL ereduaren bidez ingelesa ikasteko beharra sortu dute. Gu ez gara gai izan behar hori sortzeko. Lehen askoz ere gehiago zegoen jendearen buruan euskara ikasi beharra, eta badiot, inpresioez ari naiz, azterketarik gabe. Eta irakaskuntzaz landa zer dago? Bada, oso gauza gutxi. Garai batean pentsatu genuen irakaskuntzari eman behar geniola garrantzia, gaur egun ez dugu esaten horrelakorik: “Honi eman behar diogu garrantzia, ez dugu holako helbururik euskalgintzan edo ez dakit badugun”.

O. ZAPATA: Guk bai. Topagunean oso garbi dago, hiztunak trinkotu behar ditugu eta hiztunegi guneak eta aukerak eskaini behar dizkiegu euskaraz bizitzeko. Besteak beste, badugu problema oso serioa, haur eta gazteekin lan egiteko baldintza ekonomiko zehatzak behar ditugu, laguntzak behar dituzu administrazioak egiten ez duena gizarte mugimendutik egin nahi baduzu. Halere, uste dut efikazagoa dela administrazioak eta gizarte mugimenduak elkarrekin lan egitea.

Ezagutza, erabilera eta sentsibilizazioa orekatu behar dira. Sentsibilizazioan gutxi egin da eta egiten denean gauza efektistak egiten dira, ez efikazak. Euskararen Egunean dirutza gastatzen segitzen dugu eta ez dugu dirurik, adibidez, proiektu jarraituak bideratzeko. Efikazak zein diren? Ez dakit zenbat soziolinguista zareten [Paulari begira] baina pilo bat. Hor badago alor bat garatua, eta hor baditugu errezeta batzuk. Horiei begira egin behar dugu lan. Bidearen zati bat ikusten dut, azken hamabost-hogei urtetan jorratzen hasiak garena uste dut. Ez da aski eta ikusi behar da zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Egia da baliabide ekonomiko gabezia gain gizarte mugimendu guztietan dagoela baliabide pertsonalen falta, euskalgintzan eta besteetan. Diskurtsoetan eta pedagogietan ez dugu asko inbertitu; zer konstatu irakasleei, zer gazteei...



Oskar Zapata

Nafarroan badago mahai bat: Sortzen, AEK, IKA, Ikastolen Elkarteak, Euskal Herriaren Euskaraz eta Topagunea. Gure arteko harremana xamurtzen edo goxatzen ari gara. Manifik asko balio izan zigun elkar ezagutzeko. Nafarroaren egoera aztertzeke eta euskalgintzatik proposamenak egiteko pauso oso interesgarria da”

P. KASARES: Ados izango garena pentsatzen dut, zein garrantzizkoa izango litzatekeen Nafarroan ETB3 hartu ahal izatea. Ezin dugu imajinatu hedabideen eragina gaur egun haurrengan. Hemen ezin da ikusi eta erabaki politikoa da! Deus egiteko asmorik ez badute, gizarte mugimenduen bidetik egin beharko dugu, baina beti eraman behar dugu guk behar duguna bizkar gainean?

S. ALEMAN: Seguruena nekatu egiten gara beti ahaleginean.

P. KASARES: Ezin duzu konpetitu, Clan-ekin, Disney Channel-ekin...

S. ALEMAN: Ezin dugu konpetitu, babes falta dugu alde guztietatik, baina hori errealitatea izanik zer egin dezakegu? Ez dugu pentsatu behar ikastolak edo helduen euskalduntze-alfabetatzea sortu zirenean bitartekoak eta babesak zutenik. Ez da gauza berria babes falta. Nire ustez beste zerbaite dago hor: garai batean kemen handiz aritu ziren eta orain, edo nekea daukagulako, edo administrazioan ustea jarri dugulako, edo...

P. KASARES: Erronka ezberdinak dira. Ikastola muntatzea herriko gurasoen eskuetan egon daiteke, baina euskal komunitateak ezin du Disney Channelen antzeko gauza bat muntatu.



Paula Kasares

Ados izango garela pentsatzen dut, zein garrantzizkoa izango litzatekeen Nafarroan ETB3 hartu ahal izatea. Ezin dugu imajinatu hedabideen eragina gaur egun haurrengan. Hemen ezin da ikusi eta erabaki politikoa da! Deus egiteko asmorik ez badute, gizarte mugimenduen bidetik egin beharko da”

S. ALEMAN: Bai. Hizkuntza handien menpe gaude eta egoera orain beharbada gogorragoa da garai batean baino, baina haur eskola gurasoek sortzen ahal dute herri batean, eta oso gutxitan ematen dira horrelakoak. Beharbada neke handia daukagu, beharbada euskara ez dago gure lehen-tasunetan...

P. KASARES: Ez da konparatzen ahal 70eko hamarkadako giro soziala borrokarako, iraultza-rako...

S. ALEMAN: Horretara noa!

P. KASARES: ... eta 2010eko hamarkadako indi-bidualismoa...

S. ALEMAN: Bai, baloreak aldatu dira.

P. KASARES: Erabat, eta horrek eragiten du.

S. ALEMAN: Gainera, populazio gazte asko zegoen garai hartan. Pentsatzekoa da indarra egiteko grina ere handiagoa zela. Orain jendeak esaten du, “nahiko lan egin dut eta atsedean pixka bat behar dut”. Populazioa zahartzeak ere ekarri du hori.

Beste kontu bat. Ezagutza, erabilera eta sentsibilizazioa orekatu behar dira. Baina nire galdera da:

badago euskararen ezagutza duen masa kritiko minimorik erabilera ikusgarri izan dadin? Kurio-soa da, baina begiratu diezaiegun Iruñeari eta Gasteizi. Esango nuke abiapuntu hobea zuela Iruñeak Gasteizek baino, euskaldunagoa zen bere gutxian. Gaur egun, Gasteizen euskaraz dakitenak –gutxi edo asko dakitenak– %40 dira. Iruñean %20ra ez gara iristen.

P. KASARES: Ezagutza politikak dakarren ondorioa.

S. ALEMAN: Ezagutza politika oso diferentea egin da.

O. ZAPATA: Hiztun kopurua handitzea gure helburuetako bat da, dudarik ez. Iruñerriko hiztun kopurua ikusgarri egiteko bidea haiek konpaktatzea da. Goazen biltzera garenok, goazen elkar ezagutzera, goazen elkarrekin gauzak egitera, baina aldi berean goazen hiztun berriak erakartzera eta aukerak ematera haiei. Hiriburuan ez da batere erraza, baina zifra bat ematearren, Gasteizen aurtun Mintzalaguna egitasmoan 600 lagun ibiliko dira, alegia, ez dute beste harreman sarerik ikusi elkartzeko. Iruñean kasik 400.

2000. urtean, LARRUNerako egindako beste mahai-inguru batean solaskideek aipatu zuten euskalgintzako eragileak atomizatuta zeudela eta estrategia bateratuak egiteko zailtasunak zituztela. Zuek zer diozue?

S. ALEMAN: Normalizazioan eta euskalgintzan ari direnek, bakoitzak badu egiteko bat eta horretan saiatzen da buru-belarri. Baldintza politiko-ekonomikoek ekarri dute bakoitza bere barnean hertsitzea, bizirauten saiatzea. Aldi berean, pauso txiki batzuk ematen ari gara Kontseiluaren inguruan. 2010eko maiatzaren 15eko manifa antolatzeko hainbat taldetako ordezkari elkartzeko hasi ginen. Bilerek segitzen dute, hortik zer aterako den? Espero dut diskurtsoan zerbait ateratzea; zenbait gauzari nola egin aurre edo nola eran-

tzun, zer proposatu guk, zer pauso eman... Askotan jendeak borondatea baldin badu ere –bi aldetara ari naiz, lehen esan baitut epeldu egin garela–, zer egin asmatzea zaila da. Bilerak Nafarroa mailakoak dira. Iruñean ere bada holako biltzune txiki bat, pauso handirik oraindik ez dugu eman, baina gauza txikiak badira ere beti izan dadila aurrera egiteko, jendeak ikus dezala pausok ematen ari garela. Iruñean atomizazioa? Bai, bakoitza bere buruarekin nahiko lanekin dabil, baina holako gauza txiki batzuek erakusten dute jendea hasi dela biltzen eta zer egin daitekeen pentsatzen. Arras pesimista ez dut izan nahi.

O. ZAPATA: Nafarroan badago mahai bat: Sortzen, AEK, IKA, Ikastolen Elkarte, Euskal Herrian Euskaraz eta Topagunea. Mahai horretatik antolatu genuen manifa, kristoren arrakasta izan zuen, eta nola ez, ez genuen ospatu. Hori da beste bekatu bat, egiten duguna ez kontatzea, ez ospatzea. Ez ospatzeak nolabaiteko etenalditxoak ekarri zuen jarduera jarraituan. Une honetan diagnostiko bat elkarbanatu nahian ari gara. Aha! legin handia ari gara egiten elkarlan ez lehiakorria izan daitekeen horretan batera aritzeko. Egia da helburu bera izanik ere, estrategia desberdinak daudela, kultura desberdinetatik gatozela, batzuentzat diskurtsoan hitz totem bat dago, beste batzuentzat beste bat... Gure arteko harremana xamurtzen edo goxatzen ari gara. Manifak asko balio izan zigun elkar ezagutzeko. Nafarroaren egoera aztertzeke eta euskalgintzatik proposamenak egiteko pauso oso interesgarria da.

Eperik ezarri al duzue?

O. ZAPATA: Horretan ari gara. Lehentasunak adosteak luze jo dezake ala ez. Gauza bat da diagnostikoa egitea eta bestea lehentasunak adostea.

P. KASARES: Ados nago Sagrariok eta Oskarrekin esandakoarekin. Eragileen atomizazioa bai, baina hedabideen garrantzia azpimarratuko dut



LANDER FDEZ. ARROYABE / A. P.



JAGOBA MANTEROLA / A. P.



LANDER FDEZ. ARROYABE / A. P.

Euskararen Foru Legeak emandako aukerak aukera, eremu mistoko gurasoak etengabe dabilta borrokan eskola publikoan D eredua lortu ahal izateko.

berriz. Komunikabideek komunitatea sortzen dute eta erreferenteak elkarbanatuarazten dituzte. Nafarroan gabezia handiak ditugu, batzuetan zer egiten dugun errateko ere hedabide falta dugu. Nafarroako edozeinentzat euskal kultura



Sagrario Aleman

Pauso txiki batzuk ematen ari gara Kontseiluaren inguruan. 2010eko maiatzaren 15eko manifa antolatzeke hainbat taldetako ordezkari elkartzen hasi ginen. Bilerek segitzen dute, hortik zer aterako den? Espero dut diskurtsoan zerbait ateratzea; zenbait gauzei nola egin aurre edo nola erantzun, zer proposatu guk, zer pauso eman...”

erabat ezezaguna da. *Underground* gaude erabat, katakunbetan, gutxienekoen azpitik, eta ohituta gaude horrela bizitzera.

S. ALEMAN: Igoal ez gara aski trinkoak, baina aldi berean gure mundutxo baino ez dugu ezagutzen. Edo agian besteena ezagutzen dugu, baina ez dakigu zenbaterainokoa den beraien ezezagutza gurekiko.

O. ZAPATA: Gu mundu horren parte ere bagara. Nik uste haiek ez gaituztela ezagutzen. Estrategiak eta diskurtsoak aztertu beharko ditugu, konplize horiek ere behar ditugu noski, gehien-go da. Fustiñanako pertsona bat nola jartzen dut nire alde? Zer kontatu behar diot nire kontra ez egiteko? Ez dut formularik, baina hausnaraketak egin beharko ditugu. Maiatzeko manifan 30.000 lagun bildu ginen. Horietako askori hara joatea baino ezin diezu eskatu, baina erantzun dute, ulertu dute kontatu diezuna. Gauzak kontatzen jakin behar dugu, hartzailearen araberrako errelatoa eraiki behar dugu.

P. KASARES: Garbi dago euskararen kontrako jarrera, iritzia, mentalitatea... ez dela monolitikoa, irauli ezina. Hurbiltasunean, ezezagutzan eta urtetako aurreiritzietan oinarritzen dira horiek. Alabaina, adibidez, Tuterako Argia ikastolan

“Aiton-amonon festa” ospatzen dute eta, kontatu didatenez, euskal kulturaren oso lagunak izan ez diren aiton-amonak anitz ikusten dira bilobak euskaraz aritzearekin lertze jario. Bide emozionaletik, bertzelako bizipenen bidez, bertzelako zubiak eginez, gaituzte daitezke Nafarroako populazioaren zati handi batean dauden aurreiritziak. Maila kolektiboan gaituzte lortzen bada, iritsiko da maila politikora. Oraingoz bi Nafarroa izan daitezke tematu dira batzuk, bata euskalduna eta bertzea ez-euskalduna. Baina nafarrek erakutsi dute Nafarroan euskararako mugarik ez dagoela.

O. ZAPATA: Baina nori zer eskatu aldeztu aurretik pentsatzea ongi dago. Ez eskatu pertsona bati emango ez duena. Onartu behar dugu askok ez dutela euskara ikasiko, nahiz eta jakin guretzat ezinbestekoa dela.

Euskararen inguruko eragile, elkarte eta erakundeek aniztasuna erakutsi beharra al dute euskararen munduan ez dagoena erakartzeko?

O. ZAPATA: Erakutsi beharra, egon badagoelako. Ez dugu kontatzen daukaguna.

S. ALEMAN: Guk zer ez dugun egiten ari gara begira, baina begiratu behar dugu zer egiten duten beste batzuek. Hizkuntza politika norbaitek ongi markatu badu hori Nafarroako Gobernuak da. Diskurtsoan oso argi utzi dute euskaldunak denak berdina direla. Aniztasun gabeziaren kontua ez dator guk diskurtso hori egiten ez dugulako edo gure aniztasuna ikusten ez delako, baizik eta bestaldetik diskurtso jakin bat dagoelako, diskurtso horrek oso ongi markatzen duela “euskaldunak horrelakoak dira eta puntu”.

O. ZAPATA: Ados nago. Psikologikoki oso lan-dua daukate.

S. ALEMAN: Eta ez du pisu bera boteretik egiten den diskurtsoak eta baztertuak egiten duten



Sagrario Aleman: "ETArena aitzakia besterik ez da. Nahi ez duenak beti du aitzakiaren bat".

diskurtsoak. Boterea, ordena, ongizatea eta besteak "baztertu oihulari horiek".

P. KASARES: Euskaldunak beti gatazkan.

ETAren bukaeraren albisteak, eta ondorioz garai berrietarako esperantzak, euskararen aurkako jokaera duten agintari politikoak aitzakiarik gabe utzi al ditu?

S. ALEMAN: Euskararen alde baldin badaude, bertako hizkuntzatzat badute, ez du aitzakia bakar batek ere balio ez egiteko horrelako hizkuntza politikarik. ETArena aitzakia besterik ez da. Etxe batean goseak daude eta familia hori auzokoarekin haserre dago hark garia ereiten duelako. Familiak lurra dituzte, baina ez du garirik

ereinen. Benetan pentsatzen baldin baduzu gosea konpondu behar duzula garia ereinen duzu. Ez du gosearekin bukatu nahi, ez du euskararen aldeko hizkuntza politika egin nahi, euskararen bost axola zaiolako. Nahi ez duenak beti du aitzakiaren bat. Momentu honetan badakigu zein aitzakia duten, krisia. Hau da, euskararen alde egiteko dirua behar da, gaztelaniaren aldeko politika egiteko dirurik ez da behar nonbait, ingelesaren alde egiteko ere ez. Aitzakietako bat airean gelditu da, baina beste hainbat erabiliko dituzte: behartzearena; diru faltarena; mendialdeko horientzat bai, lau dira eta zerbait egingen dugu, besteentzat ez...

P. KASARES: Ez dut esperantzarik epe laburre-ra gauzak aldatuko direnik hizkuntza politikan. Oroituko zarete Sanzek nola erran zuen: norma-



Oskar Zapata

Zer kontatu behar diot nire kontra ez egiteko? Ez dut formularik, baina hausnarketak egin beharko ditugu. Maiatzeko manifiesto 30.000 lagun bildu ginen. Horietako askori hara joatea baino ezin diezu eskatu, baina erantzun dute, ulertu dute kontatu diezuna. Gauzak kontatzen jakin behar dugu, hartzailearen arabera errelatoa eraiki behar dugu”

lizazio politikorik ez dagoen bitartean hizkuntza normalizaziorik ez da izanen. Orain ETaren aitzakia ez baina krisiarena, independentismoarena, Nafarroaren kontrako mehatxuarena... izango dituzte. Euskara, haien diskurtsoan, nafartasunaren kontrako zerbait da.

O. ZAPATA: Euskaltzaleok unea probesteko aukera dugu, borondatea aldatuko dute baldin eta gizarteak exijitzen badie aldatzeko, boterea galtzekotan direla ikusten badute. Irudi aldetik, egia da, gurea orain berriro erakargarria izan daiteke hainbat lagunentzat, urrutiratu diren horientzat. Alde dugun guztia probestu behar dugu. Haiek probestu dute kontrakoa egiteko.

Non jarri behar dugu begia aurrerantz?

P. KASARES: Euskaldungoak ekimenak bere kabuz sortzen eta aurrera eramaten segitu behar du, tamalez horren beharra segitzen dugu izaten. Atzera begiratuz gero, gaur egun funtsezkoak diren lorpenak horrela sortu ziren. Nafarroan maila instituzionaletik etorriko ez direnez, herri ekimenez saiatu beharko dira euskal komunitatea asetzeko moduko aldaketak.

S. ALEMAN: Gure esku dago neurri handi batean momentu honetan behintzat. Horrek ez du esan nahi, ardura batean edo bestean dauden horiekin hitz egin behar ez dugunik. Batzuek diote elkarrekin egonda kutsatzen direla zenbait gauza, ea hala den. Baina bereziki ideia hori zabaldu behar dugu jendartearen: gure esku dago eta guk egiten dugun heinean, beharbada, beste batzuk ere, orain kontra daudenak, geldiaraziko ditugu edo gure alde jarri. Asko xamar eskatzea izanen da azken hori, baina tira.

Diskurtsoa landu behar dugu, ea aurreiritzi-usteak aldatzen joaten garen, motibazioa eta jarrerak landu behar dira. Beste puntu bat: kontziente izan behar dugu indarra ere badugula. Euskaldunok ez gara asko, baina bagara. Elkarrekin zenbait gauza erdietsi dezakegula garbi izan behar dugu eta gauza txikiak egiten hasi behar dugu, hala nola, kontsumitzaile gisa telefonía mugikorrek konpainiei kontuak eskatzen. Hizkuntza ohiturak aldatzearekin lotuta dago. Poliki-poliki gutako bakoitzaren ohiturak aldatzen joan behar dugu eta euskararen beharra sortzen.

O. ZAPATA: Soziologo zenbaiti entzuna diet: Gure hitzek eta uesteek errealitatea sortzen dute. Hirukia irudikatuko nuke nik. Batetik, erakargarri izaten jakin behar dugu, alde guztietatik. Bigarrenik, kontziente izan behar gara. Jakin behar dugu zein den gure egoera, zer indar daukagun eta zer aukera ditugun. Jakin behar dugu normalizazioan zein pauso emango ditugun. Hirugarrenik, gauden lekuan gaudela koherenztiaz jokatu behar dugu euskaldun eta euskaltzale gisa. Eta hori exijitu behar diegu ardurak dituzten eragile sozialen ordezkariak ere. Ez du balio euskaltzale agertzea edo euskalduna zarela esatea, eta jendearen aurrean, Parlamentuan edo bestelako foro publikoetan, erdara ederrean ari tzea nagusiki. Guztion hizkuntza praktikak eragina dauka eredu sortzerakoan eta horretaz kontziente izan behar dugu denok. ■



**Koldo Colomo**

Gareseko Udaleko Euskara zerbitzuburua

Ariadneren nafar haria

1986. urteko Euskararen Legearen harira Nafarroako hezkuntzan hizkuntz labirinto bat eraiki zuten politikariek, A, B, D eta G ereduak ezarriz eta euren ku-deaketarako hiru eremu geografiko asmatuz. Orduko batzuek uste zutenaren kontra, labirintoaren hormak gero eta altuagoak egin ziren denboraren poderioz, eta azken urteotan, beste hizkuntz eredu berri batzuk ezartzearekin batera, labirintoan galtzeko pasabideak biderkatu egin dira Nafarroa osoan. Sineztezina bada ere, egoera eskizofreniko hau eraiki da gurasoen balizko askatasunezko hautuaren izenean, noiz eta guraso nafar askok erabakitzeke unean askatasun falta salatzen dutenean.

Egia esan, ez da batere erraza Nafarroako erdialdean D ereduan ikasi ahal izateko irtenbiderik aurkitzea, bederen, nafar gobernuaren politika aldatzen ez den bitartean. Zorionez, azken hiru urte hauetan Mendigorriako, Artaxoako eta Larragako hainbat gurasok, ekinaren ekinez, aurkitu dute bidea euren seme-alabek euskaraz ikas dezaten.

Izarbe inguruan jazotzen ari denak Nafarroako hizkuntza eta hezkuntza politika ezbidezkoa uzten du agerian. Euskaraz ez ikasteko labirinto-ko lehenengo horma hizkuntza-zonaldea da. Eskualdean zonalde mistoan dagoen herri bakarra Gares denez, bertako eskola publikoan –pribatuetan ez, jakina– D ereduan ikasten ahal da. Ordea, inguruko herri guztiak eremu ez euskaldunean daude –Añorbe, Obanos, Mendigorria eta Artaxoa– eta euren eskoletan, euskara ikasgai duen A eredua hautatuena izan arren, D eredurik ez dago eskaintzan.

Hezkuntza-zonaldea labirintoko bigarren horma da. Hari esker egoera ulertezinekin topatzen ahal gara. Adibidez 10 kilometrorra dauden añorbeta-rrak D eredura joateko garraioa ordainduta dute eta Mendigorriakoek, berriz, Garestik 5 kilometrorra daudelarik, garraioa poltsikotik ordaindu behar dute, eskola-zonalde berean ez baitaude. Kasu honetan hezkuntza-zonaldeak hizkuntz ereduaren askatasunezko hautaketa mugatzen du.

Labirintoko hirugarren horma D eredua eskaintzen duen eskolarainoko distantzia da. Guraso batek baino gehiagok bitan pentsatu behar izaten du zer eredutara bidali haurra. Batez ere, herrian bertan eskola dagoenean eta gurasoek nahiko

“

Azken bi urte hauetan Mañeruko eta Ziraukiko herri eskolak itxi behar izan dituzte, guraso gehien-gehienek D eredua hautatu dutelako. Zigor bikoitza pairatu behar izan dute herritarrek; herri eskolak ematen duen aberastasuna galtzeaz gain, beharrezkoa ez den distantziaren deserosotasuna irabazi dute, euskara ikasteko Gareseraino joan behar baitute”



JACOBA MANTEROLA / A. P.

Argazkian, hainbat herritar Kontseiluak 2010eko maiatzaren 15erako deitu zuen manifestazioaren aurkezpenean.

luketen eredu hori 5 edo 10 kilometrora dagoen kasuetan. Izan ere, haurrak 3 urte dituenen ez da erraza kanpora bidaltzea. Aitzitik, herri batean eskaera D ereduaren erabat aldeko denean, orduan herriko eskolak ez du errentagarritasunik. Azken bi urte hauetan Mañeruko eta Ziraukiko herri eskolak itxi behar izan dituzte, guraso gehien-gehienek D eredua hautatu dutelako. Kasu honetan zigor bikoitza pairatu behar izan dute herritarrek; herri eskolak ematen duen aberastasuna galtzeaz gain, beharrezkoa ez den distantziaren deserosotasuna irabazi dute, euskara ikasteko Gareseraino joan behar baitute.

Erabat baztertzailea den egoera honetara ohitu dira nafar anitz, hamaika aitzakia jarritz, beste nafar batzuek baino eskubide gutxiago dituztela ez onartzeko. Hala ere, inposaketaren ukazioa egitea aski ulergarria da berezko kulturarekiko autoestima eskasa duen herri batean, gurea bezalakoa. Azken finean, jarrera hori defentsa psikologikoa baino ez da.

Zoritxarrez, eskubideak ukaturik dituzten herritarren eskutik labirintoko beste horma batzuk eraikitzen dira. Herriko eskola galtzeari beldurra, D eredua zertarako jarri lau katuk baino ez baitute eskatzen, geroan erdaldunak baztertuak geratuko diren mitoa eta arlo guztietan hagitz naturala eta saihestezina den errealitatea aldatzeari beldurra. Baina ez naiz zoritxarreko kontu hauek gehiago luzatuko.

Duela hiru urte Mendigorriako, Artaxoako eta orain Larragako hainbat gurasok Biderra elkarte sortu zuten. Helburua argia zen: euren umeei eskola euskalduna eta publikoa ematea. Zergatik mugatu umeei jasoko duten hezkuntza inolako arrakastarik ez duen A eredura? Edo, pribatuari inolako kritikarik egin gabe, zergatik ez publikoa? Akaso beste batzuek dituzten eskubideak guk ez ditugu merezi? Indibidualismoaren gizartea gaindituz auzolanari ekin zioten eta hasitako bidean Sortzen-Ikasbatuaz elkarte bidelagun izan zuten.

Arazoa konpondu nahian eskaera malgu batekin Nafarroako Parlamentura jo zuten. Bertan eginiko proposamenak honako hauek izan ziren: garraioa ordaintzeko dirulaguntza izatea – orduan Pérez Nievasek bultzatua, Noainen gertatzen ari zen bezala–; eskola-zonaldea Tafallatik Garesera aldatzea edo biak partekatzea –Mendigorriako eta Artaxoako udalen oniritzia bazegoen ere Hezkuntza kontseilariaren baiezkua ezinbestekoa zen–; D eredia jaretzea herrietako batean– Mendigorrian, Artaxoan edo Larragan– eta ingurukoekin partekatzea; zonalde mistoan sartu eta D eredia ezartzea –Deierriko kasuak argi uzten du zonalde mistoan egotearekin ez dela nahikoa D ereduaren eskaintza izateko–. Eskakera erabateko malgutasunez egin arren, Parlamentuko indar politiko gehiengoaren erantzunak –UPN eta PSN– aukera guztiak errefusatu zituen jarrera tematia eta inmobilista erakutsiz.

Ezetzak ezetz, Biderrak Nafarroako Parlamentura laster itzultzeko asmoa duela jakin dut, berriro ere malgutasunezko eskaera batekin, eskubideen zapalketa burugabeko hau eteteko. Bitartean, D ereduaren aldeko jaia antolatzen jarraituko dute, euren seme-alaben eskolarako garraio-gastuei aurre egin ahal izateko eta euskararekiko sentsibilizaziorako ondalana eskualdean barrena egiten jarraitzeko. Datorren urten, apirilaren 22an, Larragan egingen dute jaia

ZONIFIKAZIORIK EZ!

OFIZIAL TASUNA MENDIGORRIAN ARTAXOAN ETA EUSKAL HERRI OSOANI

JAIA ARTAXOAN APIRILAK 18

LAIA ETA JAIA, IRAULI DEZAGUN ZELAIA!
FIESTA EN ARTAJONA
POR LA OFICIALIDAD DEL EUSKERA
18 de Abril

10:00 Dianak Artaxoako Dultzalneroeekin.
10:00 Artissuak.
10:30 Harrera ekitaldia eta txalapartariak.
11:00 Txistorrada.
11:15 Lleidako Cola Castellera los Marracos de la Universitat.
San Fermín Peñako Iohaidunak, Mendigorriako txistulariak, Batukada eta Nafarroako eskolako trikien kalejira. Putzgarriak haurrentzako.
12:00 Garesko Dantzari talak.
13:00 Popi eta Zaratrako Paillazokak.
14:30 Bazkaria eta bolakak txozman. Musika giroetako.
Txerri kume baten Zozketa. Erromeria.
16:00 Joxak. Euskaraz eta enderaz.
17:00 Elektrobaranga eta haiek.
18:00 Non-nahi Garesko taldearekin kontzertua.
19:00 Herria bilzera!
10:00 Dianak con Iñi Gallieris de Artajona.
10:00 Artesanías.
10:30 Acto-Preseñtación y Txalapartariak.
11:00 Txistorrada.
11:15 Cola Castellera los Marracos de la Universitat de Lleida.
Pascualles con Iohaidunak de la Peña San Fermín. Txistularis de Mendigorria.
Txistularis de la escuela de Nafarroa y Batukada. Hinchables para txakis.
12:00 Dantzariak txakis de Gares.
13:00 Payasos Popi eta Zaratrako.
14:30 Bocatas en la txozna y comida. Música para amenizar la comida.
Sorteo de un Gorriñi. Ikoneria.
16:00 Joxak en euskara y castellano.
17:00 Elektrobaranga y leys.
18:00 Concierto con el grupo de Gares Non-Nahi.
19:00 JA recoger!

ANTOLATZAILAK / ORGANIZADORES:
sortzen
Ikasbatuaz
Artaxoa eta Mendigorriako Gurasoak eta Biderra
LAGUNTZAILAK / COLABORADORES:
AYUNTAMIENTO DE ARTAJONA
AYUNTAMIENTO DE MENDIGORRIA

Sortzen Ikasbatuazek, Artaxoa eta Mendigorriako gurasoek eta Biderra elkarteak 2010ean antolatutako jaiaren afixa.

eta inoiz baino jendetsuagoa espero dute. Orain denoi dagokigu hari muturrari indarrez eta modu bateratuan eustea, ea behin-goiz argi izpiak ikusten ditugun labirinto honetako iluntasunean. Ariadneren nafar haria. ■



Anika Luján

Tuterako Argia Ikastolako zuzendaria

“Gure haurrek badakite euskara hemengoa dela”



A. LUJÁNEK UTZIA

Anika Luján tuterarra da eta dozena bat urte daramatza Argia Ikastolan. Azken hiru urteetan zuzendaria da. Magisteritzan, AEKn eta Lazkaoko Maizpide euskaltegian ikasi zuen euskara.

Tutera Nafarroako eremu ez-euskaldunean dago. Duela 26 urte arrotza al zen herritarrentzat ikastola? Eta gaur egun?

Bospasei familia elkartu ziren ikastolaren sorreran. Lehen hiru tokiak Tuteran izan zituen ikastolak: peña, etxebizitza eta behitegia. Lehenengo Nafarroa Oinez eta gero, 1995ean inauguratu zen eraikuntza hau. Ordutik, gero eta ikasle gehiago, gero eta familia gehiago elkartu dira ikastolan, familia anitzak. Beti euskara izan da familiak mugitu dituen, baina ikastola handitzen joan den heinean familien motibazioa anitzagoa da.

Kontuan izan ikastolaren lehen urteak ez nituela barrutik bizi izan. Halere, jende askok ez zekien ikastola zegoenik ere. Ikasle gutxi zituen. Gero, bi Nafarroa Oinezak etorri ziren eta bai, ezagunagoa egin zen. Baina bai, herrian sentimendua beti izan da, “ze arraroak ikastolako horiek”. Baina ez zentzu txarrean, arrotzak besterik gabe.

Nire ustez, ikastola arrotz sentitzeko beste faktore bat ikastetxearen kokalekua da, ez gaude Tuteran, Fontellas herrian baizik. Tutera erdian egongo bagina, eskola bat gehiago izango ginateke. Fontellasen egoteak badu prezioa beraz.

Bestalde, ikastola oso ondo dago Fontellasen, argitsua da, zuhaitzak ditu, paisaia ikusten da leihotik...

Euskaraz irakasten duen eskola pribatua zarete.

Ikastola Erriberakoa da, gure ikasleak Tuteratik eta beste hamaika herritatik etortzen dira. Bokazioa eskualdeko ikastola izatea da, gutxi gorabehera ikasleen bi heren Tuterakoak dira eta beste herena gainerako herrietakoak. Euskaraz irakasten duen eskola pribatua? Ez pentsa, inguruko ikastetxe publiko gehienak A eredu-koak dira, euskara ikasgai moduan dute. Batzuk behintzat euskarara hurbildu dira, badakite euskara badela.

Badirudi agintari politikoek, zonifikazioa aitzakia hartuta, argudiatu egiten dutela eremu ez-euskaldunean euskara ez babestea. Kaletarrek ere halako jarrerak al dituzte?

“Zer irrika daukazue euskararekin, hemen ez da inoiz hitz egin-eta?”. Horrelakoak diozu ezta? Esan esaten dira, kontzientzia eta sentimendu kontuak dira. Beste kontu bat dira eskubideak, denok ez ditugu berak. Eremu ez-euskalduna da gurea. Ikastolak 26 urte ditu, 2006-2007 ikasturtean legalizatu zuten. Lehen Paz de Ziganda ikastolan zeuden izena emanda gure ikasleak, eskola liburua ezin genien guk eman.

Orain ikastetxe kontzertatua da ikastola. Oso ondo, baina guk daukagun eskaintza Erriberan administrazioak ez du ematen. Kontzertuak gastuen zati bat ordaintzen du eta oso ondo, baina ez chuneko chun. Administrazioak eta jendeak erabiltzen duen argudioa da zerbitzu hori doan daukazula eskola publikoan. Ez da horrela, guk inguruan ez daukagu D eredu-ko ikastetxe publikorik, doan, beraz gu ez gara ari gastuak bikoizten. Guk ematen dugun zerbitzua administrazioak eman beharko luke.

Hainbeste herritatik ikasleak Fontellasera joateko nola moldatzen zarete?

Garraioa behar ez duten bakarrak Fontellaseko haurrak dira, Tuterakoek ere autobusa hartu behar dute. Autobusek lau ibilbide egiten dituzte, bi Tuteratik eta beste bi gainerako herrietatik. Familiek nafar gobernuari diru-laguntzak eskatzen zizkien eta hala moldatu dira hainbat urtez. Orain dela hiru-lau urte diru-laguntzak murriztu edo kendu egin dizkiete. Gurasoen gain dago garraio gastua.

Ikastolako haur-gazteek nola bizi dute ikastolan ikastea?

Ez dute modu berezian bizi. Normalean 18 hilabete-terekin hasten dira, euskara ikastea normala da haientzat. Haurrengandik ez dut jaso inoiz arraro sentitzen direnaren aztarnarik. Tuterako haurren kasua ezagutzen dut hobeto, ez dakit Corellan arraro begiratzan dieten, baina ez dut uste. Beste eskolako haurrekin elkartzen direnean galdetzen diete: “Zu nora zoaz eskolara? Ikastolara? Eta euskaraz egiten duzu? Eta nola esaten da ez dakit zer?”.

Argia Ikastolako haurrek kalean ez dute euskara asko entzungo.

Ingelesarekin dagoen desberdintasuna kontzientzia da. Haurrek badakite ingelesa kanpoko hizkuntza dela, baina badakite euskara hemengoa dela. Kalean ez da jendea entzuten ingelesez hitz egiten, ingelesa irakasten duten ikastetxeetatik ateratakoan irakasleek gaztelaniaz egiten dute, ikasleek ere bai. Gu euskaraz bizi gara ikastolatik kanpo, irakasleok denok, eta ikasleekin saiatzen gara. Gurasoek ere bultzatzen dute. Euskara entzuten da kalean, ez asko, nahiagoko nuke gehiago entzutea. Haurrak bai, haiek entzuten dituzu euskaraz. Hizkuntza irakasleaz aparte, gure lana bada hizkuntzarekiko eta kulturarekiko sentimendua transmititzea. ■



DURANGOKO AZOKA 2011
HARPIDETZA ESKAINTZA BEREZIA
oparitu argia



DURANGON ERDI PREZIOAN

~~138€~~ ... ► **69€**

Azoka egunetan (abendua ren 4tik 8ra):
Azokako ARGIAren standean (Goienkale 96-97-98)
Telefonoz: 943 371 545
e-postaz: harpide@argia.com